- Kokapena: Guardiako udalerrian.
- Aurrekontua: 168.272,95 euro
- Helburua: energia elektrikoaren eskari-hazkundeari erantzutea behar bezalako zerbitzu-kalitatea eskainiz.

Ezaugarriak:
- Aireko linea elektrikoa
- Zerbitzu-tentsioa: 66 kV.
- Zirkuitu kopurua: 2
- Eroale kopurua: 3 zirkuituko.
- Eroaleak: LA- 280.
- Luzera: 994 m.
- Hasiera: 425. euskarria "Calahorra" deituriko 66kV-ko (ZB) aireko linean eta Logroño Transformazio Azpiestazioko "Haro 1" (GT -13.066) deiturikoan, 15. eta 16. euskarrien artean.
- Amaiera: 2. zirkuitua 430. euskarrian amaitzen da eta 1. zirkuitua Logroño Transformazio Azpiestazioko "Haro 1" (GT-13.066) deituriko 66 kV-ko aireko linearen 22. euskarrian.
- Babesak: metalezko sareta

Baimendu den instalazioa onura publikokoa dela deklaratzea. Aipatutako azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 54. artikuluan ezarritakoaren arabera, deklarazio honek eraginpeko ondasunen okupazioa eta eskubideak eskuratzea dakar berekin, eta, hori ez ezik, horiek lehenbailehen okupatzea ere eskatzen du, baita, 1954ko abenduaren 16ko Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluak Premiazko Okupazioa deklaratzeko ezartzen dituen ondorioak zehaztea ere, Lege horren 53. artikuluaren erregistro-ondorioetarako.

Ebazpen hau abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuan eta abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuan xedatutakoaren arabera eta honako baldintza orokor hauei jarraiki eman da:

Onartutako proiektuari jarraiki egin beharko dira obrak, kasu bakoitzean eskatu eta baimenduko diren aldaketekin.

Martxan jartzeko epea urtebetekoa izango da, ebazpen hau ematen den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Instalazioen titularrak obren amaiera jakinarazi beharko dio Arabako Lurralde Ordezkaritzari, behin betiko onarpena eman eta abiaraztearen akta egin dezan.

Obrak egiteko beharrezkoak diren udal- eta probintzia-eskumeneko eta bestelako baimenak edo lizentziak edozein direla ere, eta horiek aparte utzi gabe ematen da ebazpen hau, eta eskatzaileak nahitaez eskuratu beharko ditu baimen horiek guztiak. Halaber, hirugarrenen eskubideak aparte utzi gabe ematen da eta jabetza-eskubidea salbu utziz.

Administrazio-bidea amaitzen ez duen ebazpen honen aurka Gora jotzeko Errekurtsoa jar daiteke Industria eta Energía Sailburuordetzan, hilabeteko epearen barruan, Ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, eta hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen duen 4/1999 Legean ezarritakoari jarraiki.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 27a.– Energía eta Meategien Zuzendaria, JORGE LETAMENDIA BELZUNCE.

- Emplazamiento: en el término municipal de Laguardia.
- Presupuesto: 168.272,95 euros
- Finalidad: atender al aumento de la demanda de energía eléctrica con la debida calidad del servicio

Características:
- Línea eléctrica aérea
- Tensión de servicio: 66 KV.
- Nº de circuitos: 2
- Nº de conductores: 3 por circuito.
- Conductores: LA- 280.
- Longitud: 994 m.
- Origen: apoyo nº 425 en la línea aérea de D.C. a 66kV denominada "Calahorra" y "Haro 1" de S.T. Logroño (A.T. -13.066) entre los apoyos nº 15 y nº 16.
- Final: el circuito nº 2 finaliza en el apoyo nº 430, y el circuito nº 1 finaliza en el apoyo nº 22 de la línea aérea de 66 kV denominada "Haro 1" de S.T. Logroño (A.T.-13.066).
- Apoyos: celosía metálica

Declarar, en concreto, la Utilidad Pública de la instalación que se autoriza, llevando implícita esta declaración, a tenor de lo dispuesto en el artículo 54 de la citada Ley 54/1997, de 27 de noviembre, la necesidad de ocupación de los bienes o adquisición de los derechos afectados, e implicando la urgente ocupación de los mismos y determinando las consecuencias que para la declaración de Urgente Ocupación dispone el art. 52 de la Ley de Expropiación Forzosa de 16 de diciembre de 1.954, con los efectos registrales del art. 53 de la misma.

Esta resolución se concede de acuerdo con lo dispuesto en el Real Decreto 1955/2000, de 1 de diciembre, en el Decreto 282/2002, de 3 de diciembre y con las condiciones generales siguientes:

Las obras deberán realizarse de acuerdo con el proyecto aprobado, con las variaciones que, en su caso, se soliciten y autoricen.

El plazo de puesta en marcha será de un año, contado a partir de la presente resolución.

El titular de las instalaciones dará cuenta de la terminación de las obras a la Delegación Territorial de Araba, a efectos de reconocimiento definitivo y extensión del acta de puesta en marcha

La presente resolución se otorga sin perjuicio e independientemente de las autorizaciones, licencias o permisos de competencia municipal, provincial y otros necesarios para la realización de las obras, no relevándose al peticionario de la obligación de obtener las mismas. Asi mismo, se concede sin perjuicio de posibles derechos de terceros y dejando a salvo el derecho de propiedad.

Contra la presente resolución, que no pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer Recurso de Alzada ante la Viceconsejería de Industria y Energía, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de la notificación de esta resolución, todo ello en virtud de lo establecido en la Ley 4/1999, de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Vitoria-Gasteiz, 27 de junio de 2011.– El Director de Energía y Minas, JORGE LETAMENDIA BELZUNCE.

## EUSKO JAURLARITZA

### KULTURA SAILA

**4842**

**183/2011 DEKRETUA, uztailaren 26koa, kultura-ondasun gisa sailkatzen dituena, monumentu-multzoaren kategoriarekin, Arabako Lurralde Historikoko behe-lurretako trikuharriak, I. eranskineko zerrendari jarraituz.**

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioko 148.1.16 eta Estatutuko 10.19 artikuluen babespean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondarearen gaiari dagokionez. Aipaturiko eskumen horretaz baliatuz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena.

## GOBIERNO VASCO

### DEPARTAMENTO DE CULTURA

**4842**

**DECRETO 183/2011, de 26 de julio, por el que se califican como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, los dólmenes de tierras bajas relacionados en el anexo I, que se hallan en el Territorio Histórico de Álava.**

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, que regula los procedimientos de declaración de los bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak, 2010eko maiatzaren 3an emandako ebazpen bidez (EHAAren 96. zenbakian argitaratu zen, maiatzaren 24an), I. eranskinean agertzen diren Arabako Lurralde Historikoko behe-lurretako trikuharriak, monumentu-multzo izendapenaz, sailkatutako kultura-ondasun deklaratzeko espedienteari hasiera eman eta jendaurrean jarri eta interesdunei entzuteko izapideak abiarazi zituen. Gerora, beste trikuharri bat azaldu zen, eta, Kultura Ondarearen Zentroko zerbitzu teknikoek hura aztertu ondoren, erabaki zen hura espedientean sartzea. Horretarako, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak, 2010eko ekainaren 11ko ebazpenaren bidez (EHAAren 149. zenbakian argitaratu zen, abuztuaren 4an), jendaurrean jartzeko eta interesdunei entzuteko epe berri bat ezarri zen, monumentu-multzoa "El Montecillo" trikuharria (Eskuernagan) haren barruan sartuz mugatzeko.

Jendaurrean jartzeko eta interesdunei entzuteko epea indarrean jarri ondoren, alegazio-idatzi bat aurkeztu zuen Arabako Foru Aldundiak.

Arabako aldundiak uste du "behe-lurren" izendapena ez dela egokia, ez baitator errealitatean gertatzen denarekin bat. Trikuharriak ez daude, guztiak, haran-hondoetan edo behe-eremuetan. Horietako batzuk mendi-hegaletako goiko aldeetan edo mendi-kateen oinetan ikus daitezke. Hori esanda, adierazi behar da bibliografiak multzo moduan zehaztu izan duela hura, eta diferentzia nabarmenak adierazten dituela goi-mendietan kokatzen diren monumentu megalitikoekiko; hala, trikuharri horiek ez dira goialdeetan egoten, eta beren kokapena ez da izaten, inoiz, nabarmentzekoa beren ingurunean.

Aldundiak ez du egoki ikusten, era berean, multzo hori monumentu-multzo izendatzea, haiek konpartitzen duten ezaugarri bakarra hilobi-trikuharriak izatearena baita. Uste du ez liratekeela kanpo utzi behar azal daitezkeen gainerako monumentu megalitikoak, baldin eta, indusketak eginez gero, antzeko ezaugarriak dituztela egiaztatzen bada. Alegazio horri erantzun behar zaio espedienteko aztarnategiek tipologia komun bat dutela; izan ere, hilobi-ganbera bakarrez osatuak dira, korridorearekin edo korridorerik gabe, tumulu monumentalak haiek estaltzen dituztelarik. Haietan, hileta-erritu kolektiboak egiten ziren esparru kronologiko zabal batean, K.a IV. milurtetik K.a II. mendera bitartean.

Aldundiaren ustez, ez da zuzena Ebazpenak derrigorrean bete beharreko baldintzak ezartzea Aldundiari; izan ere, azken horrek, bere eskuduntzen egikaritze-esparruan, Trikuharrien Plana egiteko asmoa du, eta ebazpenak aldez aurretik erabaki planaren garapena edo haren azken emaitzak baldintzatu. Jaso behar ez liratekeen alderdi hauek adierazten dira: ikusteko moduko perimetro fisiko bat ezartzeko betebeharra; bi babes-eremu berezitu ezartzea trikuharri bakoitzaren mugaketa-eremuan; aparkalekuen, panelen, zaborrontzien, eserlekuen eta bestelakoen kokapena; arkeologia-ikerketetatik ateratzen den informazioa zentralizatuko duen instalazio txiki bat eraikitzeko interesa; eta zuhaitz berriak landatzeko debekua eta egungoak moztu beharra.

Ikusteko moduko muga fisiko bat ezartzeko premia justifikatuta dago, gaia menderatzen ez duten pertsonentzat zaila izaten delako jakitea zein diren aztarnategien mugak, eta, perimetro hori osatuta, ez delako uzten haien kalterako diren jarduerarik egiten; hala nola, zuhaitzak landatzea edo laborantza-lanak egitea.

Bi babes-eremu ezarri dira nabarmen ikusi bada bereizketa garbi bat dagoela hilobi-aztarnategiak zentzu hertsian betetzen duen eremuaren eta haren inguruarekin. Ez da halakorik ezarri mugak ikertzeko dauden kasuetan, babes-eremu handiagoa ezarri baita trikuharri horientzat. Horren arrazoia da erabilera-araubide desberdinak ezartzen direla eremu batean zein bestean.

Aparkatzeko lekuen kokapenaren gainean, adierazi behar da ebazpenak ez duela ezer esaten horri buruz. Egiten duen gauza bakarra da gerorako azterketa batera igorri eta azterketa horrek aurreikusitako tresna baten esku utzi horien antolamendua. Ezartzen den betebehar bakarra da aparkatzeko lekuak aztarnategietatik aparte antolatu behar direla lehentasunez. Horien kokapenak aukera eman behar du distantzia batetik ikusteko zer lekutan eraiki zen hilobi-santutegia eta haren paisaia.

Antzeko zerbait esan behar da informazioa zentralizatzeko instalazio txikiren bat eraikitzeko interesarekin; izan ere, babes-

Mediante Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, de 3 de mayo de 2010, publicada en BOPV nº 96, de 24 de mayo, se procedió a la incoación y a la apertura del trámite de información pública y audiencia a los interesados del expediente para la declaración de los dólmenes de tierras bajas relacionados en el anexo I, que se hallan en el Territorio Histórico de Álava, como Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental. Posteriormente, se tuvo conocimiento de la aparición de un nuevo dolmen, que se decidió incluir en el expediente tras su examen por los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural. Para ello, mediante Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, de 11 de junio de 2010, publicada en BOPV nº 149, de 4 de agosto, se abrió un nuevo periodo de información pública y audiencia para ampliar la delimitación del Conjunto introduciendo el dolmen de "El Montecillo" (Villabuena de Álava).

Abierto el trámite de información pública y audiencia a los interesados, presentó escrito de alegaciones la Diputación Foral de Álava.

La Diputación no considera adecuada la denominación "de tierras bajas" porque no todo el grupo se ajusta a esa realidad, ya que no todos se ubican en fondos de valle ni zonas bajas y algunos se localizan en zonas elevadas de laderas o al pie de monte de cadenas montañosas. Cabe señalar en este punto que el grupo ha sido definido como tal por la bibliografía, que presenta una clara diferenciación con respecto al grupo de monumentos megalíticos instalados en la alta montaña, comparten ubicación en zonas no elevadas y, en ningún caso, su posición es destacable dentro del entorno en el que se instalan.

Tampoco estima adecuada la consideración del grupo como Conjunto Monumental ya que el único aspecto común que presentan es el de ser dólmenes de carácter funerario, por lo que no habría que dejar fuera el resto de monumentos megalíticos que pudieran presentar características similares si fueran objeto de excavación. Cabe contestar a esta alegación que los yacimientos incluidos en el expediente presentan una tipología común, formada por una cámara funeraria, con o sin corredor, con monumentales túmulos cubriéndoles, donde se practican ritos funerarios de carácter colectivo a lo largo de un periodo cronológico amplio, que va desde el IV milenio a.C. hasta mediados del s. II a.C.

La Diputación no está de acuerdo con la inclusión en la Resolución de requisitos de obligado cumplimiento que condicionen el futuro Plan de Dólmenes a desarrollar por la Diputación en ejercicio de sus competencias, que predeterminen su desarrollo y condicionen sus posibles resultados finales. Entre los aspectos a no incluir señalan: la obligación de establecer un perímetro físico visible, el establecimiento de dos zonas de protección diferenciadas dentro del ámbito de delimitación de cada dolmen, la ubicación de aparcamientos, paneles, papeleras, bancos…, el interés de construir alguna pequeña instalación que centralice la información procedente de las investigaciones arqueológicas y la prohibición de replantación de nuevo arbolado y la tala del existente.

La necesidad de establecer un límite físico visible se justifica por la dificultad para los profanos en la materia para reconocer hasta dónde llega el perímetro de los yacimientos, y evitar así actuaciones que en modo alguno contribuyen a la conservación de los mismos, tales como la plantación de árboles, cultivos, etc.

Se han establecido dos zonas de protección en aquellos casos donde parecía evidente la diferenciación entre el área ocupada estrictamente por el yacimiento funerario y el entorno más inmediato, no así en los casos donde los límites deban ser investigados, optando por un área de protección más amplia. El motivo es que el régimen de usos es diferente para ambas zonas.

En lo relativo a la ubicación de los lugares de aparcamiento en la Resolución no existen determinaciones al respecto, sino que se remite a su posterior estudio y articulación en el instrumento previsto en ella. La única obligación recogida es la de que deberán ordenarse, preferiblemente al margen de los yacimientos, en emplazamientos que permitan contemplar con distancia el lugar donde se levantó el santuario funerario y su paisaje.

En el mismo sentido cabe pronunciarse respecto al interés de construir alguna pequeña instalación que centralice la información,

araubidea osatuko duen azterlan batera igortzen du ebazpenak, eta ez du esaten zenbat izan behar duten. Ebazpenak azpimarratzen duen gauza bakarra da aztarnategiak testuinguruan jarri behar direla, multzo osoaren ulerpen egoki bat egiteko.

Zuhaitzak landatu eta laborantza-lanak egiteko debekua aztarnategiak berak okupatzen duen eremura mugatzen da babes-erregimenean, eta horren arrazoia da sustraiek ez dutela tumuluan bertan hazi behar, monumentuaren egitura eta haren zaintza kaltetu baitezakete.

Arabako Aldundiak zenbait nabardura egin ditu alegazioan trikuharrien deskribapena zehazteko. Onartu egiten dira nabardura horiek, eta, kasuaren arabera, kendu edo gehitu egingo dira, haiek argiago identifikatzeko eta deskribatzeko.

Jendaurrean jartzeko izapidea abiarazten duen Ebazpenari erreparatuta, Aldundiak uste du, jendaurreko erakustaldiaren izapidearen ondoren, entzunaldiko izapidea egin beharko litzatekeela, eta justu horren ondoren idatzi beharko litzatekeela sailkatze-prozeduraren ebazpen-proposamena. Horren harian, erantzun behar da izapideak abiarazten dituen ebazpenak jendaurreko informazioko epe bat ezartzen duela alegazioak egiteko, eta sailkapenak eragindako udalei eta Arabako Foru Aldundiari entzuteko izapidea ere xedatzen duela, eta, horrez gain, monumentu-multzo baten aurrean gaudenez, egoki diren aldizkari ofizialetan argitaratzen dela ebazpena, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 11.3. artikuluak arautzen duena betez. Bestalde, entzunaldiko izapidea eta jendaurreko informazioko izapideak —Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 84. eta 86. artikuluek arautuak, hurrenez hurren— egintza bakar batean erabaki daitezke, lege beraren 75. artikuluak horretarako aukera ematen baitu. Izapide horien izaera juridikoak aukera ematen du biak batera abiarazteko, eta ez da derrigorra bata bestearen atzetik betetzea.

Aldundiak uste du legeak agintzen ez dituen zenbait alderdi aipatzen dituela babes-erregimenak; hala nola, aurretiazko plan bat prestatu beharra multzoaren balioa indartzeko, multzoan bertan egin daitezkeen jarduerak baimentzeko erregimena, edo aurretiazko plan horrek Eusko Jaurlaritzaren aldeko txostena behar izatea. Amaitzeko, esaten du Eusko Jaurlaritzak labur adierazi beharko lituzkeela zer jarduera egin daitezkeen eta zer jarduera debekatuko diren, babes-erregimenean sartzen diren lurren jabeek haien eman diezazkieten erabilerak eta haietan egin ditzaketen jarduerak zehazteko, eta lurralde historikoen esku utzi beharko lukeela gai horren arauzko garapena eta egikaritzea.

Esku artean dugun kasuan, badira zenbait erabilera nabarmen kaltegarriak direnak aztarnategi horien zaintzarako eta haien irudi faltsu bat zabaltzen laguntzen dutenak. Hori dela-eta, berariaz adierazten dira zer erabilera dauden debekatuta eta zer elementu arrotz kendu behar diren multzotik. Babes-erregimenak, multzoaren beharrizanei egokitasunez erantzungo badie, adierazitako plan horren beharra du erabaki batzuk aurrerago zehatz daitezen. Ebazpenak, hala ere, babes-erregimenak ez du inon esaten Arabako Foru Aldundiak egin behar duenik multzoa aztertu eta antolatzeko aldez aurreko plan edo agiri hori, hura Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak egin baitezake, beste erakunde batzuen eskuduntzak zapaldu gabe. Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 4.3. artikuluak, funtsean, arautzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioek, beren eginkizunen eta eskumenen baitan, derrigorrean lan egin behar dutela elkarrekin kultura-ondarea babesteko, eta, horretarako, elkarrekiko harremanak izan behar dituztela, komunikazio osoan, lankidetzan eta elkarren laguntzan oinarrituak. Alderdi hori mugatu eta Eusko Jaurlaritzaren esku uzteko aukera bazegoen ere, berariaz utzi da zehaztu gabe, eta, ondorioz, Foru Aldundiak nahiz Eusko Jaurlaritzak edota biek batera egin dezakete lan hori, bien egitekoa baita gure kultura-ondarearen geroa bermatzea; agerikoa da lantegi zaila eta ardura handiko lana dela eginkizun hori behar bezala betetzea. Horrenbestez, Arabako Foru Aldundiak egin dezake multzoaren babesa eta hedapena babesteko oinarriak ezarriko dituen plana, baina beti izango da Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren egiteko utziezina bere eginkizuna betetzea, hau da, beharrezko irizten dituen alderdi guztien txosten edo irizpenak ematea.

ya que la Resolución se remite también al futuro instrumento de estudio que completará el régimen de protección, sin decir cúantas deban ser e insistiendo únicamente en la necesidad de contextualizar los yacimientos para una mejor comprensión del conjunto.

La prohibición de arbolado y cultivo recogida en el régimen de protección está referida al área ocupada por el propio yacimiento y se justifica por la necesidad de que las raíces no se desarrollen en el propio túmulo perjudicando la estructura del monumento y su conservación.

La Diputación realiza algunas matizaciones referidas a la descripción de los dólmenes que son aceptadas y se procede a su eliminación o adición, según los casos, para una más clara identificación y descripción de los mismos.

Respecto al trámite de información pública previsto en la Resolución de incoación entiende la Diputación que debería ir acompañado posteriormente por el trámite de audiencia, que a su vez sería inmediatamente anterior a la redacción de la propuesta de resolución del procedimiento de calificación. A este respecto cabe contestar que en la Resolución de incoación se abre un periodo de información pública para efectuar alegaciones y se concede audiencia a la Diputación Foral de Álava y a los ayuntamienos afectados por la calificación y, al tratarse de un Conjunto Monumental, se procede a su publicación en los Boletines correspondientes sustituyendo a la notificación a los propietarios afectados, tal y como se prevé en el artículo 11.3 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco. Por otro lado, los trámites de audiencia e información pública de los artículos 84 y 86 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, pueden, en virtud del artículo 75 del mismo texto legal, acordarse en un solo acto ya que, por su naturaleza, admiten ser impulsados simultáneamente y no es obligado su cumplimiento sucesivo.

La Diputación considera que la mención que se hace en el Régimen de Protección de la articulación de un Plan previo a la puesta en valor del conjunto y a la autorización de las actividades que tengan lugar en éste no se encuentran exigidas por la ley, ni que el mencionado Plan deba ser informado favorablemente por el Gobierno Vasco. Concluye que el Gobierno Vasco deberá limitarse a especificar sucintamente las actuaciones que podrán realizarse y las que queden prohibidas, en el sentido de usos y actividades de los propietarios de los terrenos afectados, dejando a los Territorios Históricos el desarrollo normativo y la ejecución de la materia.

En el presente caso, si bien existen usos que se manifiestan claramente contrarios a la preservación de estos yacimientos y que contribuyen a dar una imagen falsa de los mismos, razón por la que se señalan de forma específica como usos prohibidos o elementos discordantes en el conjunto a eliminar, en buena medida el régimen de protección, para que sea más adecuado a las necesidades del conjunto, precisa de posponer algunas determinaciones a la articulación del mencionado Plan. Sin embargo, este Plan o documento previo de estudio y ordenación del conjunto, no se dice en el régimen de protección que deba ser realizado por la Diputación Foral de Álava, puesto que sin invadir las competencias de otras instituciones, podría ser realizado por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco. No obstante, y siguiendo el espíritu del artículo 4.3 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, que señala la obligación de colaborar estrechamente las Administraciones públicas de la CAV, en el ejercicio de sus funciones y competencias para la defensa del patrimonio cultural, mediante relaciones recíprocas de plena comunicación, cooperación y asistencia mutua, este aspecto que pudiera haber sido acotado y dejado en manos del Gobierno Vasco se deja sin concretar intencionadamente, pudiendo ser tanto la Administración Foral como el Gobierno Vasco los que lleven esta iniciativa a buen término, o ambas al unísono, dado que ambas están implicadas en esta complicada y de gran responsabilidad tarea de preservar para el futuro nuestro Patrimonio Cultural. En cualquier caso, lo que en modo alguno puede dejar de hacer el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco es, caso de ser la Diputación de Álava la que lleve a cabo este Plan que establezca los pilares para asegurar la protección y difusión del conjunto, deshacerse de la responsabilidad que le toca, debiendo informar aquello que estime necesario.

Azkenik, Arabako Foru Aldundiak adierazten du erabilera eta jardueren erregimen orokorreko 5. artikuluko 4. puntuak Kultura Sailaren esku uzten duela erabilerak eta jarduerak berariaz baimentzeko eskumena, baldin eta erabilera edo jarduera horien ondorioz ez bada eremu babestuko lurrik mugituko edo aztarna arkeologikorik antzaldatuko. Aldundiak dio xedapen horrek urratu egiten duela Euskal Kultura Ondareari buruzko Legearen 29.2. artikulua, arau horrek agintzen baitu aldundiak baimendu beharko dituela sailkatutako kultura-ondasunekiko erabileren eta jardueren aldaketak.

Argitaratutako erabileren eta jardueren araubide orokorrak, arau orokor gisa, babes-erregimenean adierazten diren erabilerak eta jarduerak baimentzen ditu, eta erregimen horrek xedatzen du emandako babesarekin bateraezinak izango direla araubide horretan adierazten ez diren erabilera eta jarduerak. Arau orokor horren salbuespen modura, eremu babestuko lurra mugituko edo aztarna arkeologikoak antzaldatuko ez duten jarduerak baimentzeko aukera ematen da; betiere, babes-araubideko xedapenak betetzen badira eta Kultura Sailak aldez aurretiko baimena ematen badu. Arau-xedapen horrek bete egiten du Euskal Kultura Ondareari buruzko Legearen 12.1.d) artikulua, babes-araubidean jasotzen baititu egin ahal izango diren edo egin beharrekoak izango diren jarduerak eta debekatuta izango diren jarduera, eta, horrez gain, ez du 29.2. artikuluak arautzen duena urratzen, deklarazioaren ondorenean aplikatzekoa baita, ondasunaren babesa ezarri ondoren.

Ondorioz, Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legearen 11.1. eta 12. artikuluetan arautultakoarekin bat, Kultura Ondarearen Zentroko zerbitzu teknikoek egindako txostena ikusirik, Kultura sailburuaren proposamenari jarraituz, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko uztailaren 26an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.- Sailkatutako kultura-ondasun izendatzea, monumentu-multzoaren kategoriarekin, Arabako Lurralde Historikoko behe-lurretako trikuharriak, I. eranskineko zerrendari jarraituz.

2. artikulua.- Dekretu honen I. eranskinean agertzen den mugaketa ezartzea ondasunari, eranskin horretan bertan ematen diren arrazoiengatik.

3. artikulua.- Indarrean dagoen Kultura Ondareari buruzko Legeak ezartzen duen ondorioetarako, proposamen honen II. Eranskinean agertzen den moduan, sailkatutako ondasunaren deskribapen formala egitea.

4. artikulua.- Dekretu honen III. Eranskinean agertzen den babes-araubidea onestea.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena.- Euskal Kultura Ondarearen Zentroko sailkatutako kultura-ondasunen erregistroan inskribatuko ditu Kultura Sailak I. eranskinean zerrendatzen diren Arabako behe-lurretako trikuharriak.

Bigarrena.- Jabetza Erregistroari igorriko dio Dekretu hau Kultura Sailak, Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 26. artikuluak adierazten dituen ondorioetarako, eta interesatuei jakinaraziko die, nola diren, Bilar, Kuartango, Laguardia, Leza, Lantarón, Agurain, Donemiliaga eta Eskuernagako udalak eta Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saila, Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saila, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

Hirugarrena.- Kultura Sailak Bilar, Kuartango, Laguardia, Leza, Lantarón, Agurain, Donemiliaga eta Eskuernagako udalei eskatuko die beren udaleko hirigintza-araudia Monumentu Multzoaren babes-araubidera egokitzeko, behar bezala bete dadin Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 12.2. artikuluak arautzen duena.

Laugarrena.- Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta ALHAOn argitaratuko da, jende guztiak horren berri izan dezan.

Por último la Diputación Foral de Álava alega que el apartado 4 del artículo 5 del Régimen General de usos y actividades atribuye al Departamento de Cultura la autorización expresa de otros usos y actividades que no supongan remoción del terreno ni la alteración de los restos arqueológicos existentes en la zona protegida, incumpliendo lo previsto en el artículo 29.2 de la Ley del Patrimonio Cultural Vasco que ordena que se sometan a autorización de la Diputación los cambios de uso y actividad a que se destinen los bienes culturales calificados.

En el Régimen General de Usos y Actividades publicado se autorizan, como regla general, los definidos en el propio régimen de protección y se consideran incompatibles con la protección otorgada los no indicados en los preceptos del mismo. Como excepción a esa norma general y con sometimiento a las prescripciones del régimen de protección, se posibilitan otros usos y actividades, previa autorización del Departamento de Cultura, que no supongan la remoción del terreno ni la alteración de los restos arqueológicos existentes en la zona protegida. Esta previsión cumple con el artículo 12.1 d) de la Ley del Patrimonio Cultural Vasco respecto a la obligación de incluir en el régimen de protección las actuaciones que podrán o deberán realizarse y las que quedan prohibidas y no interfiere en lo previsto en el artículo 29.2, que es aplicable a un momento posterior a la declaración una vez se ha protegido el Bien.

En su virtud, de conformidad con lo establecido en los artículos 11.1 y 12 de la Ley 7/1990, de Patrimonio Cultural Vasco, visto el informe de los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural Vasco y a propuesta de la Consejera de Cultura y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 26 de julio de 2011,

DISPONGO:

Artículo 1.- Declarar los dólmenes de tierras bajas relacionados en el anexo I, que se hallan en el Territorio Histórico de Álava, Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental.

Artículo 2.- Establecer como delimitación del Bien la que consta en el Anexo I del presente Decreto, en base a las razones esgrimidas en el mismo.

Artículo 3.- Proceder a la descripción formal del Bien Calificado, a los efectos que la vigente legislación sobre patrimonio Cultural prevé, en los términos expresados en el Anexo II del presente Decreto.

Artículo 4.- Aprobar el régimen de protección que se establece en el Anexo III del presente Decreto.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.- El Departamento de Cultura inscribirá los dólmenes de tierras bajas relacionados en el anexo I, que se hallan en el Territorio Histórico de Álava, en el Registro de Bienes Culturales Calificados, adscrito al Centro de Patrimonio Cultural Vasco.

Segunda.- El Departamento de Cultura comunicará el presente Decreto al Registro de la Propiedad, a los efectos previstos en el artículo 26 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, y lo notificará a los interesados, a los Ayuntamientos de Elvillar, Kuartango, Laguardia, Leza, Lantarón, Salvatierra, San Millán y Villabuena de Álava, a los Departamentos de Euskera, Cultura y Deportes y de Administración Local y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Álava, así como al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

Tercera.- El Departamento de Cultura instará a los Ayuntamientos de Elvillar, Kuartango, Laguardia, Leza, Lantarón, Salvatierra, San Millán y Villabuena de Álava para que procedan a la adecuación de la normativa urbanística municipal a las prescripciones del régimen de protección que se determina para dicho Conjunto Monumental, en cumplimiento de lo establecido en el artículo 12.2 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco.

Cuarta.- Publíquese el presente Decreto en el Boletín Oficial del País Vasco y en el BOTHA para su general conocimiento.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Administrazio-bidea amaitzen du Dekretu honek, eta bere aurka, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar dezakete Jaurlaritzaren Kontseiluan hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan, Dekretu honen azken argitaratze-egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Bigarrena.- Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen emana, 2011ko uztailaren 26an.– Lehendakaria, FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.– Kultura sailburua, MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

**I. ERANSKINA**

MUGAKETA

Arabako Lurralde Historikoko behe-lurretako trikuharrien monumentu-multzoa dugu hau (Arabako Lautada, Arabako Errioxa gehiena, Lantarón eta Kuartango). Egitura, kronologia eta material aldetik Mesetako antzeko beste batzuekin izan dezake loturarik.

Monumentu-multzoan sartzen diren trikuharriak hauek dira: Chabola de la Hechicera eta El Encinal (Bilar); Lazaya, San Martín, Alto de la Huesera eta Los Llanos (Laguardia); El Sotillo (Leza/Laguardia); La Mina eta La Lastra (Lantarón); Sorginetxe (Agurain); Aizkomendi (Donemiliaga); San Sebastian I, San Sebastian II, Gurpide Hegoa eta Gurpide Iparra (Kuartango) eta El Montecillo (Eskuernaga).

Multzoaren mugaketa IV. eranskineko planoetan agertzen da, hortxe ikusten baitira 1. eta 2. eremuetako mugak (beharrezkoa izanez gero), multzoa osatzen duten elementuenak. Aztarnategiaren beraren mugek markatzen dute 1. eremuaren luze-laburra; 2. eremua, ordea, aztarnategia oso-osorik kontserbatzeko beharrezkotzat jo den espazio zabalagoa babesteari begira ezarri da, suntsiketa edo aldaketa arriskuak saihesteko.

**II. ERANSKINA**

DESKRIPZIOA

Multzoa 16 trikuharrik osatzen dute, honako udalerri hauetan kokatuak: Kuartango, Lantarón, Agurain, Donemiliaga, Laguardia, Leza, Bilar eta Eskuernaga. Bata bestetik oso hurbil daudelako edota toki batzuetan ugariago direlako, trikuharrietako batzuk estazio megalitikotzat jo izan dira bibliografian, Kuartangoko estazioa edo Arabako Errioxakoa kasu. Dena den, talde homogeneo bat osatzen dute guztiek, zeren denak antzeko kokagunetan agerturiko kultura-adierazpen beraren aztarnak baitira, hau da, arro mediterraneoko behe-lurretan daude, kronologia, eraikuntza-mota eta erabilera aldetik berdintsuak diren goi-lurretako megalitoak ez bezala,

Hilobi-adierazpide megalitiko hauek oso esparru kronologiko zabala hartzen dute Euskal Herrian, hasi K.a. IV. milurteko bigarren erdialdean –Neotilo garaian, argiro–, hainbat erabilera etapa agertzen dituela, eta Brontze Aroan bete-betean egindako azken hilobi-geruzen arte, K.a. II. milurtearen erdialdean.

Trikuharri-talde nabarmenena osatzen dute, arkitektura aldetik duten monumentu izaerari dagokionez. Euskal Herrian ugariagoak diren goi-mendietako trikuharrietan ez bezala, hauen tipologia galeria-hilobiarena da. Monumentu hauek zirkulu erako ganbera poligonal baten oinarrian daude eratuta, erdian korridore bat dutela, batzuetan zeharkako partiketa egiten duten lauzak kontserbatuta. Estalkia buruduna izaten da batzuetan, Chabola de la Hechiceran, Aizkomendin edo Sorginetxen oraindik ikus daitekeen moduan. Ganberako ortostatoak behetik gora estutuz doaz, eta, hala, goiko irekigunea txikiagoa da. Akabera-molde hau, ordea, ez du ematen beti gertatzen zenik, zeren eta ganbera batzuek duten diametro handiari errepa-

DISPOSICIONES FINALES

Primera.- Contra el presente Decreto, que agota la vía administrativa, los interesados podrán interponer, en su caso, previamente Recurso potestativo de Reposición ante el Consejo de Gobierno en el plazo de un mes, o bien, directamente, Recurso Contencioso-Administrativo ante la sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco dentro del plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de su última publicación.

Segunda.- El presente Decreto surtirá efectos el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 26 de julio de 2011.– El lehendakari, FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.– La consejera de Cultura, MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

**ANEXO I**

DELIMITACIÓN

Se trata del Conjunto Monumental de los dólmenes propios de las tierras bajas del Territorio Histórico de Álava (Llanada Alavesa, Rioja Alavesa la mayoría, Lantarón y Kuartango) y que por su estructura, cronología, así como los materiales asociados a ellos, pueden emparentarse con otros semejantes de la Meseta.

Los dólmenes que quedan incluidos como parte de este Conjunto Monumental son los que siguen: Chabola de la Hechicera, El Encinal (Elvillar); Layaza, San Martín, Alto de la Huesera, Los Llanos (Laguardia) y el Sotillo (Leza/ Laguardia); La Mina, La Lastra (Lantarón); Sorginetxe (Salvatierra); Aizkomendi (San Millán); San Sebastián I, San Sebastián II, Gurpide Sur y Gurpide Norte (Kuartango) y el Montecillo (Villabuena de Álava).

Para la delimitación del conjunto ver los planos que se incluyen en el Anexo IV, donde se indican los límites de las zonas 1 y 2 (en caso de establecerse como necesaria), de los elementos que forman parte integrante del mismo. En primer lugar la Zona 1 viene definida por los límites del propio yacimiento, mientras la Zona 2 se ha establecido en aquellos casos donde se ha entendido necesario proteger un espacio más amplio que asegure la permanencia del yacimiento de forma íntegra, sin riesgos de destrucción o alteración.

**ANEXO II**

DESCRIPCIÓN

Forman parte de este conjunto un grupo de dólmenes, 16 en número, localizados en los términos municipales de Kuartango, Lantarón, Salvatierra, San Millán, Laguardia, Leza, Elvillar y Villabuena de Álava. Algunos de ellos, por encontrase más próximos y ser más numerosos, han sido tratados por la bibliografía como estaciones megalíticas como la denominada estación de Kuartango o la de la Rioja Alavesa. De cualquier modo, todos ellos constituyen un grupo homogéneo en cuanto que son restos de una misma manifestación cultural en un emplazamiento similar, tierras bajas de la cuenca mediterránea, frente al grupo de megalitos instalados en altura, de cronología de construcción y utilización similares.

Estas manifestaciones funerarias megalíticas se encuadran en un marco cronológico muy amplio en el País Vasco, desde la segunda mitad del IV mileno a.C., en un momento antiguo claramente Neolítico, presentando etapas de utilización sucesivas hasta las ultimas deposiciones funerarias realizadas en la Plena Edad del Bronce, a mediados del II milenio a.C.

Constituyen el grupo de dólmenes más destacado, en lo que al carácter monumental de su arquitectura se refiere. Su tipología frente a los de montaña, más habituales en el País Vasco, en la mayoría de los casos responde a la tipología de sepulcro de corredor. Estos monumentos se configuran en base a una cámara poligonal de tendencia circular y un pasillo que en ocasiones conserva losas de compartimentación transversal. La cubierta a veces se resuelve adintelada, como se puede ver en la Chabola de la Hechicera, Aizkomendi o Sorginetxe, donde todavía se conserva. Se produce una aproximación de los ortostatos de la cámara, reduciendo la abertura superior de la misma. Esta solución sin embargo no parece que se diera siempre, si

ratuta –San Martingoa, kasu– zaila da imajinatzen horrela estalita egon zitezkeenik. Beste aukera bat izan liteke kupula aizun batez estaltzea edota txabola moduko zurezko sabai batez.

Hilobi-ganberaren gainean tumulu eskuarki handi bat dago, urrutitik ere nabarmen ageri dena. Oin-planoek zirkulu tankerarako joera dute eta harri handiz eta lurrez osatuta daude.

Den-denak induskatu dira, eta ganberak eta korridoreak hustu, baina tumulu osoa ez. Gehienak zaharberritu edo sendotu egin dira, nola edo hala, eta ia denek dute dagokien seinalizazioa.

Hauek dira monumentu-multzoa osatzen duten elementuak:

- Chabola de la Hechicera eta El Encinal trikuharriak (Bilar).
- Layaza, San Martín, Alto de la Huesera, Los Llanos (Laguardia) eta El Sotillo (Leza/ Laguardia) trikuharriak.
- La Mina eta La Lastra trikuharriak (Lantarón).
- Sorginetxe trikuharria (Agurain).
- Aizkomendi trikuharria (Donemiliaga).
- San Sebastián I, San Sebastián II, Gurpide Hegoa, Gurpide Iparra trikuharriak (Kuartango).
- El Montecillo trikuharria (Eskuernaga).

Chabola de la Hechicera trikuharria (Bilar). Korridore motako trikuharria, tamaina oso handia duena. Hilobi-ganbera (4 m x 3,80 m, eta 2,7 m garai) hareharrizko bederatzi lauzaz osaturik dago, oinplano poligonala du, eta beste lauza batek egiten du estalkiarena. Korridorearen oinplanoa angeluzuzena da eta bost lauza ditu, 1,10 m zabal eta 1,50 garai den pasabidea eratzen dutenak. Zeharkako lauza batek bitan banatzen du korridorea. Trikuharriaren gauzarik bereizgarriena da korridoreko ostostatoen eta ganberako ortostatoen artean dagoen garaieraren aldea. Estaltzeko tumulua zati batean kontserbatzen da bakarrik.

El Encinal trikuharria (Bilar). Trikuharri handia da, ganbera poligonal batez eta korridore batez osatua. Ganbera (2,96 m x 2,50 m, eta 2 m garai) hareharrizko sei lauzaz osaturik dago. Korridoreak lau lauza ditu, eta hiru metro luze eta metro bat zabal da. Ez dauka estalkilauzarik. Askorik nabarmentzen ez den eta inguruko hareharriz eginda dagoen tumulu batez estalita dago.

Layaza trikuharria (Laguardia). Korridore motako hilobi megalitikoa, oinplano irregularra duena (3,00 m x 1,80 m). Hareharrizko zazpi lauzatan oinarrituta dago, eta korridoreak zortzi lauza ditu. Hego-ekialdeko lauza bat galdu da. Korridorea (0,75 m zabal), bestalde, nahiz eta ongi markatuta egon, nahiko egoera eskasean dago. Trikuharria harri-tumulu obalatuz batez (26 m x 16 m) inguratuta dago.

El Sotillo trikuharria (Laguardia/Leza) Aurrekoa bezala, hau ere korridore motako hilobi megalitikoa dugu. Hilobi-ganbera obalatua da (3,30 m x 2,90 m), eta bederatzi lauza ditu, horietako bat 2,29 metroko garaierarekin. Korridorea (0,60 m zabal, 1,30 m garai) bost lauzak mugatzen dute. Monumentuaren inguruan lurrez eta harri txikiz egindako tumulua ikusten da, 18 bat metroko diametroa duena. Bertara iristeko pistak tumuluaren beraren zati bat mozten du. Zaharberrituta dago.

San Martin trikuharria (Laguardia). Erraz identifikatzen da, tumuluaren gainean txabolatxo bat duelako, hain zuen trikuharriaren ganberako lauzak atzealdeko murrutzat dauzkana. Korridore erako trikuharria da, estalkitzat lauza lauak dituena (bat bertatik bertara ikus daiteke), eta zirkulu tankerako tumulu bat hilobi-ganbera inguratuz. Ganberak oinplano poligonala du, eta hareharrizko hamar lauza eskergaz osaturik dago (5,75 m x 3,10 m, eta gehienezko 1,90 m garaiera). Korridoreak bost lauza ditu eta 1,20 m zabal eta 1,30 m garai da. Pasabidearen mendebaldeko lauzak, zeinean bermatzen baita estalkikoa, zulo edo husgune ugari ditu, ustez megalitismoari dagozkion arte-adierazpenekin lotuak. Trikuharriaren inguruan harriz eta lurrez eratutako tumulua dago, ondoko mahastizaintza-lanek larri hondatu dutena.

se tiene en cuenta el gran diámetro que presentan algunas cámaras como la de San Martín en cuyo caso resulta difícil imaginar una cubierta resuelta de este modo. Otra posibilidad de cubrición que se plantea sería la de una falsa cúpula o techado de madera a modo de choza.

Sobre la cámara funeraria se dispone el gran túmulo que les hace evidentes, destacados en el paisaje, en general de grandes dimensiones. Presentan plantas tendentes al círculo y son elaborados a base de grandes piedras y tierra.

Todos ellos han sido excavados, vaciando cámaras y corredores, no así la totalidad del túmulo. Así mismo, la mayoría de ellos han sido objeto de procesos más o menos fuertes de restauración y/o consolidación, así como en casi todos los casos se encuentran señalizados.

Los elementos que constituyen parte de este conjunto Monumental son los que siguen:

- Dólmenes Chabola de la Hechicera y El Encinal (Elvillar).
- Dólmenes de Layaza, San Martín, Alto de la Huesera, Los Llanos (Laguardia) y el Sotillo (Leza/ Laguardia).
- Dólmenes de la Mina y la Lastra (Lantarón).
- Dolmen de Sorginetxe (Salvatierra).
- Dolmen de Aizkomendi (San Millán).
- Dólmenes de San Sebastián I, San Sebastián II, Gurpide Sur, Gurpide Norte (Kuartango).
- Dolmen del Montecillo (Villabuena de Álava).

Dolmen Chabola de la Hechicera (Elvillar). Dolmen de corredor, de monumentales dimensiones. La cámara sepulcral (4 m. x 3,80 m. y altura de 2,7 m.), constituida en base a 9 losas de arenisca, presenta planta poligonal, conservando una losa más como cubierta adintelada. El corredor, de planta rectangular, conserva 5 losas que delimitan un paso de 1,10 metros de ancho y 1,50 metros de altura. Una losa más, en sentido transversal, divide en dos estancias el pasillo. Lo más destacable en el dolmen es la diferencia de altura que presentan los ortostatos del pasillo con respecto a los que configuran la cámara. Se cubre con un túmulo que se conserva sólo parcialmente.

Dolmen de El Encinal (Elvillar). Dolmen de grandes dimensiones, configurado en base a una cámara poligonal y un corredor. La cámara (2,96 m. x 2,50 m. y altura 2 m.) está formada por 6 losas de arenisca. El corredor está configurado por 4 losas, presentando 3 metros de longitud y 1 de ancho. No presenta ninguna losa de cubierta. Le cubre un túmulo poco acusado, compuesto por piedras areniscas de la zona.

Dolmen de Layaza (Laguardia). Sepulcro megalítico de corredor, formado por una cámara de planta irregular (3,00 m. x 1,80 m.), constituida en base a 7 losas de arenisca y un corredor de 8. Una de las losas del lado sureste se ha perdido. Por su parte, el corredor (0,75 m. de ancho) aunque esta bien marcado, su conservación es bastante incompleta. El dolmen se encuentra rodeado por un túmulo de piedras (26 m.x 16 m.) de planta ovalada.

Dolmen de El Sotillo (Laguardia/ Leza). Como el anterior, también es un sepulcro megalítico de corredor. La cámara sepulcral, de planta ovalada (3,30 m. x 2,90 m.), está configurada por 9 losas, de las que alguna llega a tener hasta 2,20 metros de altura. El corredor (0,60 m. de ancho y 1,30 m. de altura), se define gracias a 5 losas. Alrededor del monumento se observa el túmulo realizado en base a tierra y piedra de pequeño tamaño con un diámetro de unos 18 metros. La pista de acceso al túmulo corta parte del mismo.

Dolmen de San Martín (Laguardia). Se reconoce fácilmente porque presenta un chozo construido sobre su túmulo, el cual aprovecha como muro trasero las losas de la cámara dolménica. Es un dolmen de corredor, cubierto con losas planas (de las que todavía se mantiene una in situ) y túmulo más o menor circular rodeando la cámara funeraria. La cámara presenta planta poligonal y está constituida por 10 losas de arenisca de extraordinarias dimensiones (5,75 m. x 3,10 m. y altura máxima de 1,90 m.). El corredor, se configura en base a cinco losas, presentando una anchura de 1,20 metros y una altura de 1,30 metros. Esta losa del lado W del pasillo, sobre la que descansa la de cubierta, presenta abundantes agujeros o cazoletas que parecen responder a manifestaciones de arte propias del megalitismo. En torno a este se dispone el túmulo de piedras y tierra, el cual ha sido seriamente afectado por los cultivos de viñas que han rodeado el monumento.

Alto de la Huesera trikuharria (Laguardia). Trikuharri hau oso handia da, eta, azken ikerketei esker, esan dezakegu, korridoredun trikuharria dela, multzoko trikuharri gehienak bezala. Hareharrizko sei lauza handi ditu egun, esparru poligonal bat mugatzen dutenak (2,65 metroko diametroa). Lauzak bertikalak dira, erdirantz elkartzeko joerarekin, bata bestean bermatuz estaltzeko eraketa sinplea bilatuko balute bezala. Lauza handiago bat dago, gaur egun ganbera barruan eroria, batzuen iritziz jatorrizko estalkia izan zitekeena. Halaber, oinplano irregularreko tumulua du ganberaren inguruan.

Los Llanos trikuharria (Laguardia). Korridore erako trikuharria. Sei lauza ditu, hilobi-ganbera poligonala (3 m x 2,6 m) eta 103 cm zabalerako pasagunea mugatzen dituztenak. Azken horretan oraindik jatorrizko kokalekuari eusten dioten bost ortostatu daude. Ganberako lauzen altuera 1,62 metro da, baina korridorekoena 85 cm. Kasu gehienetan bezala, ez da gelditzen estalkiaren aztarnarik. Tumulua harri handiz eta lurrez eginda dago. Haren zati handi bat induskatu gabe eta sasiak hartuta dago.

La Mina trikuharria (Lantarón). Ohiz kanpoko oinplanta du, definigaitza. Ondorioz, batzuek bi ganbera daudela diote, beste batzuek ganbera bat eta ganberaurrekoa bereizten dituzte, eta badago azken espazio hori korridoretzat jotzen duenik ere. Edonola ere, hareharrizko lauzek bi gune markatzen dituzte: gune nagusia edo ganbera (handiagoa), zazpi lauzaz osatua (bost oraindik zutik daude eta beste batzuk barrualdean erorita daude) eta oinplano poligonaleko barne-espazio bat (2,85 m x 3,40, eta 2,40 m garai) mugatzen dutenak. Aurrekoari hegoaldetik atxikia beste esparru bat dago, zazpi lauzak eratua. Bigarren esparru hori txikiagoa da eta 1,05 metroko garaiera du. Zati batean tumulutik hartutako harriz estalita dago. Tumuluak oinplano obalatua du, eta argiro nabarmentzen da paisaian. Bi metroko altuera du, eta ardatzik luzeena (E-W) 23 metro da. Tumulua arian-arian zabalduz doa ertzetan, zeren inguruko soroak goldatzearen ondorioz gero eta lur gehiago biltzen baitu. Zereal-alorrez inguraturik dago eta, horrenbestez, nekazaritza-lanek nabarmen markatzen dute monumentua, tumuluaren muga ia bertikala uzteraino.

